

IRUÑEKO EUSKARAZKO HAUR ESKOLAK

Plaza publikoak ukatuta, herri eskola sortuko dute

Haur Eskolen matrikulazio epea hasita, HE Gurasoak plataformari azken bultzada falta zaio Iruñeko Udalak euskarazko plazetan egin duen %70eko murrizketa ordezkatu ahal izateko. Herri ekimeneko eskola bideratzeko gurasoen babesa badute, finantzaketa eta egoitza lortzeko ari dira orain lanean. Herri eskola, eredu publikoaren epe laburreko alternatibatzat du plataformak.

 **MIKEL URABAIEN OTAMENDI**
 **JAGOBA MANTEROLA / FOKU**

Hizkuntza eskubideek ez dute bermerik Iruñean. Aurten, euskarazko haur eskolen egoera gehiago okertuko da, 0 eta 6 urte bitarteko umeen matrikulazioa hasi ondoren. Izan ere, udalak bertako hizkuntza zaharrenaren plaza kopurua %70 murriztu du haien hezkuntza eta zaintza sisteman.

Baina eskaria herri eskolaren bitartez hornitu ahal izateko HE Gurasoak plataforma sortu da, euskalgintzako hainbat eragileren babesarekin. Hizkuntza eskubideak defendatzeaz gain, “egoera hau salatu, eta salaketa horren ondorioak (plazarik gabe geratzea) arintzea” dute helburu, datorren ikasturtean “pla-

za publikoetan berreskuratzeko”. Horregatik, seme-alabak sare publikoak euskaraz eskaintzen dituen eredueta matrikulatzera animatzen dituzte gurasoak, plataforma alternatiba gisa planteatuz. Hilabeteak daramatzate lanean, baina lokala eta azken bultzada ekonomikoa falta zaie. Iñigo Otxoa Fernández plataformako kidea baikor agertu da eta proiektua “egingarria” dela ziurtatu du.

Udalaren posizioak atzera bueltarik ez zuela ohartuta, EH Gurasoak plataformako kideek Nafarroako Hezkuntza Departamentura jo zuten, izan ere, instituzio horrena da Iruñean dauden bost haur eskolen eskumena, zeinetan euskarazko plazak %14 diren. “Foru Gobernuak bertan behera geratu diren euskarazko plazak orekatzea zen asmoa”, azaldu du Otxoak. Baina, Iruñeko Euskalgintzak salatu duenez, Nafarroako Gobernuaren “omisioak” errudun bihurtzen du. “Kasu honetan ere, ez da borondate politikorik egon”, haserre agertu da Otxoa. “Koronabirusaren krisia lehertu baino lehen, indar politiko guztiekin elkartzeari eskatu genuen, baina bat-batean konfinamendua hasi zen eta, politikariekin bideokonferentzia bitartez hitz egin dugun arren, PSNkoekin ezin izan gara elkartzeko. Beraiek diote deitu digutela, baina guk ez dugu deirik jaso eta hitzordua- ren esperoan gaude oraindik”.

Bilerak ez dira plataformak alarma egoeragatik galdu duen aukera bakarra. Otsailean ehunka iruindar hizkuntza eskubideen alde manifestatu ondoren, giza katea egitea zen indarra erakusteko zeukaten hurrengo ekimena, baina bertan behera utzi behar izan zuten. Konfinamenduak zailtasunak eragin dizkie negoziaketetan, baita barne an-

tolamenduan ere. Gainera, Nafarroako Auzitegiak diktaturiko epaiaren aplikazioa urtebete atzeratzea eskatu zuen plataformak, baina Navarra Sumak ez du atzera egin.

Ikasturte berria hilabete batzuk barru hasiko denez, herri eskola martxan jartzeko pausoak ahalik eta azkarren eman behar izan ditu plataformak: “Eginkizunak hiru ikuspunturen arabera banatu ditugu: ordenantza, urbanismoa eta pedagogia. Gurasoak gara, eta ez gai hauetan adituak, horregatik kristoren lana etorri zaigu gainera”. Jada gai horiek jorratu dituzte eta behar bezainbeste gurasoren babesa daukate, finantzaketa eta neurri egokiak dituen egoitza falta zaizkie. Iruñeko hegoaldean ari dira egoitza bila, baina oraingo ez dute zor- terik izan: “Hori dela eta, etxelagun zerbitzuak –haurtzaindegizat hezitzailearen etxea daukan sistema– antolatzea baloratzen ari gara, baina nabarmen garestituko luke gure kooperatiba”.

Haur eskola publikoetan matrikulazioa jada hasita, irudi luke guraso askoren elkartasuna ez dela nahikoa izan udalak hasi zuen “gerra estatistikoari eta euskararen zokoratzeari” aurre egiteko, baina inondik inora. Izan ere, haxe da, Otxoaren hitzetan, euskara garaile egingo duen filosofia: “Ez gara iniziatiba pribatua bilakatzeko sortu. Gure sistema, publikoarekiko ahalik eta berdinen izaten saiatuko gara eta jakin badakigu plataformarentzat iraungitze data hurrengo matrikulazio epeak izan behar duela. Bitartean, familiak haien seme-alabak euskarazko eskola publikoetan matrikulatzera animatzen ditugu eta, plazarik lortu ezean, guregana hurbiltzera, gu indartsu gaude eta”.



ASPALDIKO ALDARRIA. Argazki hau, adibidez, 2016koa da. Iruñeko Alde Zaharreen euskarazko haur eskola eskatzen ari ziren.

2016AN, JOSEBA ASIRON ALKATE ZELA

Orduan, EH Bilduko Asiron alkatearen agindupeko lau gobernuak Iruñean zeuden euskarazko haur eskola publikoak bikoiztu zituen. Bi eskolatako eredu aldaketaren ondorioz, seme-alabak euskaraz heztea ekidin nahi zuten ia ehun gurasok zentro aldaketa eskatu eta udalaren erabakia salatu zuten, UPN, PP eta PSN alderdien babespean, “euskaren inposaketa” argudiatuz. Nafarroako Auzitegiak gurasoei arrazoia eman zien udalak erabilitako prozedura desegokia zelakoan.

2019ko udal hauteskundearen ondoren, Enrique Mayak (Navarra Suma) Asiron ordezkatu zuen agintean. Fernando Sesma Hezkuntza, Kultura eta Herritarren Parte Hartze zinegotziak haur esko-

len hizkuntza ereduari buruzko inkesta martxan jarri zuen Mercatec enpresa gipuzkoarraren bitartez. Emaizak argitaratu gabe zeudela, Navarra Sumak euskarazko plazak “gehiegizkoak” zirela ondorioztatu eta hizkuntza honen eskaintza datozen hiru urteetan Asironen garaiko %39,4tik %11,9ra murrizteko asmoa iragarri zuen; 371 plazatik 112ra.

Martxoaren 6an, Iruñeko Udalbatzak Sesma lan gaitzetsi zuen, EH Bildu, Geroa Bai eta PSNren botoekin, zinegotziak ez baitzituen inkestaren datuak erakutsi. Apirilaren 25ean, alarma egoera betean, Navarra Sumak emaitzak ezagutarazi zituen: gurasoen %66k gaztelania eta ingelesa nahiago du; %22k soilik euskara; eta %7k gaztelania besterik ez. Hau da, ondorioak ateratzeko Sesma erreferentzia moduan hartu duen

inkestan ez zegoen euskara eta ingelesa aldezkatzen dituen eredu hautatzerik; bai, ordea, gaztelania eta ingelesa batzen dituen. Bi gaztelaniazko aukera, euskarazko bakar baten aurka. Navarra Sumaren irakurketa interesatua zen hori.

Beste irakurketa bat egin eta eredu aukera zabalagoa eskainita, portzenta-jeak zeharo desberdinak ziren: gurasoen %55ak gaztelania eta ingelesa hautatuko luke; %13k, euskara bakarrik; %10ak, euskara eta ingelesa; %8k, gaztelania eta euskara; %5ak ingelesa, euskara eta gaztelania; %6k gaztelania soilik; %2k beste aukera batzuk; eta %1ek ez du adierazi. Emaiz horiek kontuan hartuta, familien %36k euskara barne hartzen duen ereduren bat aukeratuko luke, hots, Iruñeko sare publikoan dagoen D ereduarekin bat datorren proportzioa. ●

BABESLETA:



**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**

**hasi etxetik eta kalera,
hasi kaletik eta etxera...**

arnasa GARA, EUSKARAZ GARA!